

# HAUR HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



## IV MODULOA ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA

2018/19 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

**IRAKASLETZA ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA**



## AURKIBIDEA

IRKIBIDEA.....	3
SARRERA.....	4
KONPETENTZIAK.....	5
LANAREN EZAUGARRIAK.....	6
3.1. TALDEEN EGITURA.....	6
3.2. LAN AUKERAK.....	7
3.3. LAN TARTEKATUAK: PAPER-ZORROA.....	7
3.4. ENTREGATZEKO AZKEN LANAK.....	8
3.5. AURKEZPENA ETA FEED-BACK IRAKASLE TUTOREKIN (PROZESUAREN EBALUAZIO).....	9
LAN PROZEDURA ETA ANTOLAKETA.....	10
4.1. EGUTEGIA 2019.....	10
4.2. KRONOGRAMA: GELAKO SAIOAK.....	11
IKASLEEN EBALUAZIOA.....	12
ANSKINAK.....	13
ERANSKINA I: TALDEAREN FITXA.....	13
ERANSKINA II: TALDE LANA HAUSNARTZEKO ERRUBRIKA.....	14
ERANSKINA III: AUTO-EBALUAZIO ORRIA.....	15
ERANSKINA IV: MODULUKO LANA AURKEZPEN SAIOEN BALORAZIOA.....	16

## 1. SARRERA.

Gero eta aldakorragoa den gizarte eremuan, eskola -irakatsi eta ikasi baino haratago doan-espazio moduan, asko aldatzen ari da. Etengabe aldatzen ari dela esan genezake. Aldaketa horien oinarrietako bat, eskolan barne biltzen diren pertsonak gero eta anitzagoak izatean datza. Aniztasun hori oso izaera desberdinetakoa da gainera. Horregatik beharrezkoa dugu batetik aniztasuna kontzeptu gisa lantzea eta bestetik aniztasuna aintzat hartuta gure inguru hurbilean dauden praktika egokien azterketa bat egitea.

Guzti horretarako, modulu honetako irakasle taldeak aniztasun kontzeptura hurbilpen ahalik eta sakonena egiteko baliabideak eskainiko ditu, bai eta diziplinarteko lan hau egiteko behar diren aholku eta laguntza ere. Helburua: gaur aniztasuna aintzat hartuta burutzen diren egitasmoak oinarri hartuta, horien inguruko hausnarketa lan bat egitea.

Ikasketa Plangintzan aurre ikusten da ikasleek, ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA ardatz hartu eta bigarren lauhileko irakasgaien ekarpenak jasoaz, diziplinarteko lan bat garatuko duzuela. GIDA honetan zehazten dira lan horren nondik norakoak.

*Eskola inklusiboaren oinarriak, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) eta Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanizetan* irakasgaien irakasle-taldeak lan hau aurre ikusten du irizpide nagusi batean oinarrituta:

Aniztasuna eta hezkuntza bezalako aztergai bati aurre egiterakoan, irakasgai ezberdinetatik abiatua, ikuspegi zabalagoa eman nahi diogu aniztasunaren gaiari. Horrela, moduluan parte hartzen duten irakasgaietatik haratago joan eta diziplina ezberdinetara zabalduko da proposamena, era askeago eta irekiago batean.

<b><i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i></b>	<b>DIZIPLINARTEKO LANA: ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA</b>
<i>Pello Urkidi Elorrieta</i>	
<b><i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i></b>	
<i>Esti Amenabarro</i>	
<b><i>Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</i></b>	
<i>Nere Amenabar, Iker Gomez de Segura eta Jose Miguel Correa</i>	
<b><i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanizetan</i></b>	
<i>Izaro Arroitia</i>	

2. KONPETENTZIAK.

GRADUKO KONPETENTZIAK	
G003. IKASKUNTZA-TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA	Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.
G004. BIZIKIDETZA ETA GATAZKEN KONPONKETA	Ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo bizikidetza sustatzea. Bizikidetza demokratikoaren arauak eraikitzean ikasleek parte har dezatela sustatzea eta gatazkak bake giroan konpondu daitezela elkarlanean ahalegintzea. Ikaskuntzaren eta bizikidetzaren testuinguruak sistematikoki behatzen jakitea eta horien inguruan gogoeta egiten jakitea, eta, oro har, ikasleen gaitasunak hezkuntzaren ikuspegitik eta etengabeki ebaluatzeko tresna nagusi gisa behaketa erabiltzeko gai izatea.
G009. HAUR ESKOLA ETA IRAKASLEAREN EGINKIZUNAK	Haur-hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamenduak eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntza-lanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea.
G010. ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA	Gurasoen orientatzaile gisa jardutea, familia-hezkuntzarekin loturik, 0-6 urte bitarteko epealdian, eta ikasle bakoitzaren familiarekin eta gainerako familia guztiarekin izaten diren tratu eta harremanetan gizarte-gaitasunak menderatzea. Tutoretza eta koordinazio-lanak egitea tutoretza-ekintzarako proposamenak antolatuz, eta familiarekin eta hezkuntza komunitateko beste kide batzuekin elkarlanean jardutea eskolako jardura ikaslearen gizarte eta familia mailako ingurunearekin harremanetan jartzeko eta hezkuntza-prozesuan eraginkortasun handiagoz eragiteko.

<p>G012. HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO DISEINUA</p>	<p>Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza- prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesurena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diena. Kalitatea hobetzarren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.</p>
<p>G014. HAZKUNDE PERTSONALA</p>	<p><b>Epealdi honetan</b> neska-mutilen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.</p>
<p>G015. KOMUNIKAZIO- KONPETENTZIAK</p>	<p>Komunikazio-konpetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (<b>ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak</b>) <b>garapen integral baten testuinguruan.</b></p>

## 3. LANAREN EZAUGARRIAK.

### 3.1. TALDEEN EGITURA.

Lau/bost kidez osatutako ekipoak eratuko dituzue, eta horietako kide bat izendatu beharko da taldeko koordinatzaile. Koordinatzaile hau izango da irakasleekin harremanetan jarriko den pertsona arduraduna, eta edozein komunikaziorako erreferentzia. Taldean osaketa irakasleek erabakiko dute, zozketaz edo alfabetikoki baino Ordenagailu Taldeak (GO) errespetatuz.

Behin sortu ondoren talde lanari buruz hausnarketa bat egingo duzue: taldearen izena, talde arauak, konpromisuak. Azken urte hauetan talde lanak sortzen dituen arazo eta gatazka zabaltzen ari direla ikusten dugu. Askotan, erdi ezkutaturik gelditzen dira lana egiten duzuen bitartean eta bakarrik azaltzen dira lana bukatzeko momentuan eta gauza handirik ezin denean egin. Horregatik hasierako saio batean, behin taldeak finkatu ditugunean, saio batean landuko duzue talde bakoitzak finkatu nahi dituen errubrika, non islatu beharko dituzuen ze arauak edo ze irizpide dira inportanteak talde lana ongi egiteko edota kudeatzeko (ERANSKIN I eta II).

Taldeko kide guztiek derrigorrez hartu behar duzue parte klaseko saioetan, eta baita hortik kanpo burutzen diren jardueretan ere. Posible ez balitz, lanen banaketa egin eta irakasle arduraduna jakinaren gainean egon beharko da.

Zenbait saioetara etortzen ez diren ikasleak taldearen parte izango balira (adibidez, balioztatuta dutelako irakasgairan bat) ere, parte hartu beharko lukete moduluko lanera

dedikatuko diren saioetan. Graduko ikasleek moduluko lana egin beharko duzue, baldin eta gutxienez, modulu bateko bi irakasgaitan matrikulatuta bazaudete. Gainerako kasuetan, ikasleek ez duzue moduluko lana egin beharrik izango.

## 3.2. LAN AUKERAK.

Aniztasuna gai nagusia hartzen da eta honen inguruan irakasleek esperientzia eta baliabide ezberdinak eskainiko dituzte, ikasle bai maila pertsonalean bai taldean hausnarketa bultzatzeko. Batzuetan irakurketak eta solasaldi dialogikoak (artikuluak edo liburu atalak), edo ipuinak izango dira. Pelikulak, bideo eta dokumentalak ere ikusi eta aztertuko ditugu. Bestetan, gure ikastetxean nahiz kanpoan garatuko ditugun antzerki eta tailer ezberdinak, erakustaldiak, hitzaldiak edo mahai inguruak ... Saiatuko gara ere ahal den neurrian kanpoko baliabideak erabiltzea (erakusketak, beste erakundeek edo elkarteek egiten dituzten tailerrak, ...). Horrela aniztasun gaiari hurbilketa akademiko nahiz pertsonen bizipenetan oinarritutako hausnarketa bermatu nahi dugu.

Jarduera hauei buruz hausnarketa moduko bat eskatuko dizuegu ikasle-taldeei eta paper-zorro batean joan behar duzue biltzen lan indibidualak nahiz taldekoak. Ikasle talde bakoitzak bere paper-zorroa blog baten bidez garatuko du.

Azken helburua zera da, horren ondorioz “collage” moduko bat egin eta aurkeztu narratiba digitalaren bidez, non esperientzia guztietatik Ikaslek zerbait islatu behar duten edo eragin gehien sortu dizunari buruzkoa hausnarketa bat egitea. Hemen ikasle taldeak erabateko askatasuna izango du aniztasuna gaia bideratzeko, izandako esperientzia guztiei buruz edo taldeak hautatzen duenari buruz hausnarketa bat sakontzen eta aurkezten.

Narratiba digitalarekin batera “egilearen testua” ere aurkeztu behar da, lan idatzi bat. Lan honetan narratiba hori egiteko taldeak izan duen prozesua azaldu behar du. Nolabait narratiba osatzeko balio behar du bi zentzuetan: alde batetik narratiba digitalean ezin izan dena islatu edo azaldu azaltzeko, eta bestetik, egindako irakurketak eta izandako esperientziekin loturak edo harremanak sortzeko. Zuen proposamena eta izandako esperientzia nahiz irakurketen artean harreman hori koherente eta aberatsa sortzea, ongi baloratuak izango dira.

## 3.3. LAN TARTEKATUAK: PAPER-ZORROA.

Ikasleak, nolabait, lana poliki joango zarete eraikitzen. Tartean esperientzia ezberdinak izango dituzue eta hauei buruz eskatuko zaizue hausnarketak egitea, gero azken entregatzekoetan balio izango zaizkizuenak. Bitartean eta azken narratiba eta entregatzekoa borobildu arte, joan etorriak egin ditzakezue behin betiko narratiba egin arte. Egilearen testuan prozesu hau deskribatu eta baloratu beharko duzue, beti saiatzen egindako ekitaldiekin eta landutako testuak edo beste formatuak (irakurketak, bideo eta pelikulak, tailerrak, erakusketak, dinamikak, hitzaldiak, mahai inguruak, ....) harremanetan jartzen.

Sortzen dituzuen ebidentziak paper-zorro batean jaso beharko dituzue. Esperientzia edo

ekitaldi bakoitzak maila indibidualean nahiz taldeka landu behar dituzue eta irakasle-tutoreak aukera izango dute jarraipen bat egiteko.

Indibidualki nahiz taldeka egiten duzuen hausnarketa nahiko libreza izatea planteatzen da baino orientabide gisa galdera edo ideia hauek kontuan hartzea ongi legoke:

- Zer ikasi dut/dugu aniztasunari buruz? Neukan/geneukan aurre ideiarekin bat aldatu dut esperientzia edo ekitaldiaren ondoren? Nola?
- Zein da eragin gehien egin didan/digun esperientzia edo jarduerak?
- Ze sentimenduak izan ditut? Zerekin lotzen ditut?
- Zerbait ikasi edo aldatu badut/badugu, badakit /badakigu ze prozesua izan dudan/dugun edo zerk erraztu duen?
- Zerbait ikasi al dut taldekideengandik? Zer? Ze textuinguruan?

### 3.4. ENTREGATZEKO AZKEN LANAK.

Paper-zorroa sortuz gain, bukaeran ikasle taldeek aniztasuna eta hezkuntza ardatz hartuta bi lan entregatu beharko dituzue, narratiba digital bat eta txosten idatzi bat. Horretarako hiru hilabete izango dituzte (otsaila, martxoa eta apirila) eta hasieratik bukaera arte lauhileko lau irakasgaiak zenbait ordu eskainiko dizkiote diziplinarteko lanari, aurkezpen eta feedback saioak barne. Gelan lana prestatzeko astero irakasgai baten lau klase orduak txandaka izango dituzue (ikus 4. atala), eta IKT irakasgaiaren kasuan gutxiago izango dira.

- a. Narratiba digital bat: hemen aniztasunari buruzko hausnarketa islatu behar dute. Lehen azpimarratu den moduan ikasleek, hausnarketa egiteko bi aukera izango dute. Lehenengoa “collage” moduko bat egitea, non izan dituzten esperientzia eta ekitaldiei buruz haien hausnarketa islatu behar duten. Honek gehienez 3 minutuko iraupena izan behar du. Bigarrena izango zen eragin gehien egin dien esperientzia bat hautatu eta sakondu narratiba digital horretan. Bi kasuetan iraupena berbera da, gehienez 3 minutu.
- b. Testua idatzia, “egilearen lana”. Hemen horrelako gauzak islatu behar dira:
  - Narratiba sortzeko izan duzuen prozesua: non izan dituzue oztopoak, zer islatu nahi izan duzue, ze lotura egin nahi izan duzue aniztasun gaiarekin, ...
  - Lanean esperientzia edo ekitaldiekin egin dituzuen loturak, egin dituzuen egile ezberdinen irakurketak edota ikusi dituzuen bideoak, pelikulak, eta dokumentalekin sortu dituzuen hausnarketak ... islatu behar ditu.... Nolabait integrazio lan bat egin behar duzue.
  - Talde lanaren prozesuari buruz hausnarketa: zer moduz joan da, non egon dira arazoak, nola kudeatu dituzue, errubrika balio duen ala ez eta zertan, ... nolabait zuen buruari buruz ebaluazio formatiboa bat egin. Abiapuntu bezala errubrika har dezakezue.



- Ekitaldi edo esperientziei buruz narratiban sartzerik izan ez duzuen baina komentatu nahi duzuen garrantzitsua gertatu zaizuelako.

### 3.5. AURKEZPENA ETA FEED-BACK IRAKASLE TUTOREKIN (PROZESUAREN EBALUAZIO).

Txostenetan jasotako lan ekoizpena gelan aurkeztuko da gelakideen aurrean, zehaztuta dauden egunetan (maiatzaren 2 eta 3, goizez), eta horretarako bi eskola egun baliatuko dira talde denek euren aurkezpenak egiteko. Aurkezpenekin, funtsean, elkartruke horizontala sustatu nahi da, elkarrengandik ikasten jarraitu ahal izateko. Eta asmo berarekin taldeek gainerakoen aurkezpenak ebaluatzeaz gain (ikus Eranskina III), aukera izango duzue lauhilekoaren azken asteko "itzultze kritikoen astean" edo "feedback astea" parte hartzeko (maiatzaren 6-10 bitartean), non irakasleekin egindako lanaren elkar-trukerako bilera egingo den (Eranskin III).

Aste horretan irakasgaia batzuk mantenduko dituzte bere klaseak eta beste batzuk feed-back egiteko erabiliko dira. Lan idatziaren irakurketa hutsa bihurtu ez dadin, hona irizpide batzuk:

- Ahozko aurkezpenak 20-25 minutu iraungo du (ez gehiago) eta taldekide guztiek parte hartuko duzue. Minutu horietan narratiba digitala ere erakutsiko da.
- Azken 5 minututan galderen txanda izango da.
- Aurkezpeneko erabili ahalko dira proiektorea eta pantaila, zein bestelako baliabideak. Fakultatean bertan ez dauden materialak ere ekarri ahalko dira nahi izanez gero.
- Orokorrean aurkezpenak Areto Nagusian izango dira baino talderen batek nahi badu aukera egongo da (gure posibilitate barne) aurkezpena beste espazio batean egiteko. Aurkezpenean ere baloratuko da sormena lantzea eta beste ereduak erabiltzea lana aurkezteko.
- Aurrez erabili beharko diren baliabideak frogatzea gomendatzen da. Horretarako irakasle arduradun bat izango da aurkezpeneko aurreko egunetako, ordutegi finko batean, taldeak bertaratu eta euren tresnek ongi funtzionatzen al duten frogatzeko. Garrantzitsua da, batez ere, soinua duten bideoak proiektatuko badira hauek aurrez frogatzea.

## 4. LAN PROZEDURA ETA ANTOLAKETA.

### 4.1. EGUTEGIA 2019.

Hemen agertzen den irakasgaien banaketa oso aldakorra izan daiteke. Zenbait ekitaldi oraindik ezin dugu zehaztu kanpoko pertsonekin adostu behar ditugulako. Jakin ahala jakinaraziko dizuegu baino kasu gehienetan saiatuko gara klase orduetan egiten.

URTARRILA							OTSAILA							MARTXOA									
	A	A	A	O	O	L	I		A	A	A	O	O	L	I		A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5	6					1	2	3	2						1	2	3
	7	8	9	10	11	12	13	3	4	5	6	7	8	9	10	3	4	5	6	7	8	9	10
	14	15	16	17	18	19	20	4	11	12	13	14	15	16	17	4	11	12	13	14	15	16	17
1	21	22	23	24	25	26	27	1	18	19	20	21	22	23	24	1	18	19	20	21	22	23	24
2	28	29	30	31				2	25	26	27	28				2	25	26	27	28	29	30	31

APIRILA							MAIATZA							EKAINA									
	A	A	A	O	O	L	I		A	A	A	O	O	L	I		A	A	A	O	O	L	I
3	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4	5							1	2
4	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9		
1	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16		
	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23		
	29	30						27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30		

OROKORRAK	
	Jai egunak eta oporrak
	Azterketak: ohiko deiladiak
	Azterketak: ez ohiko deiladiak

IRAKASGAIK	
1	Gizarte eta Kultura ezagutza
2	Eskola inklusiboaren oinarriak
3	Informazio eta Komunikazio Teknologikoak
4	HHrako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak

MODULUKO LANEKO EGUN KLABEAK	
	Moduluko lanaren aurkezpena
	Ohiko diealdiko amaierako txostena entregatzea
	Ahozko aurkezpenak
	Feedback astea
	Ez-ohiko deialdiko amaierako txostena entregatzea

## 4.2. KRONOGRAMA: Gelako saioak

Hemen agertzen den irakasgaien banaketa oso aldakorra izan daiteke eta batzuetan konpartitua (adibidez tailerrak egiten ditugunean, ez du irakasgai bakar batek bere denbora eskainiko nahiz eta koadroan bakar bat agertu). Zenbait ekitaldi oraindik ezin dugu zehaztu kanpoko pertsonekin adostu behar ditugulako. Jakin ahala jakinaraziko dizuegu baino kasu gehienetan saiatuko gara klase orduetan egiten eta hemen agertzen den banaketa egokitzen. Beraz, hurrengo koadroa ezin da dagoen bezala ulertu modu zorrotzean, erreferentzia bat da eta irakasgai guztiek parte hartzen dutenaren islada adierazi nahi du. Beraz asteak eta irakasgaiak, lan prozesuaren arabera aldatu daitezke.


Gelako saio bakoitzean moduluko lanari ekingo zaio, arduraduna den irakaslearekin lanean. Saio hauetan taldeko **kide guztiek hartu behar dute parte** derrigorrez, eta bertarutzen ez den ikasleren bat balego irakasleari jakinarazi beharko zaio.

Saioa	Astea	IRAKASGAIA
1	16/17	<i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i>
2		<i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i>
3	17	<i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i>
4		<i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i>
5	21 edo 22	<i>Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</i>
6	18	<i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan</i>
7		<i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan</i>
8	22	<i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i>
9		<i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i>
10	23	<i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i>
11		<i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i>
12	24	<i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan</i>
13		<i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan</i>
14	25	<i>Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</i>

## 5. IKASLEEN EBALUAZIOA.

Diziplinarteko egitasmo honen ebaluazio prozesua prestakuntza eta hobekuntza aukera bat suerta dadin, lau ebaluazio ekimen berezitu ditugu:

- a) Batetik, txosten idatzia eta horren ahozko aurkezpena baloratu eta kalifikatuko dira. Biak ontzat ematen badira, emaitzak lauhilekoko irakasgaien azken notan %20eko (2 puntu) balioa izango du (1,2 kreditu, alegia).



IKT irakasgaiaren kasuan, %10eko puntuazioa izango du



- b) Bestetik, ikasle bakoitzak ebaluatuko ditu lan prozesuko ibilbidea, lan dinamika, denboraren erabilera... (Eranskin II). Eta ikasturteko azken astean “itzultze kritikoa” egiteko bi lan saio izango dira irakasleek eta ikasleek prozesua bera eta ekoizpena, eta batzuen eta besteen lana aztertu ondoren, iradokizunak eta proposamenak luzatu ahal izateko.

Aurkezpen egunean beste taldeen aurkezpenak ere ebaluatu beharko dituzue (Eranskin III).

**ERANSKINAK.**

**ERANSKINA I: Taldearen fitxa**

TALDEAREN IZENA:

LAN TALDEAREN E-MAILA:

LANAREN IZENBURUA:

TALDEKIDEEN DATUAK:

ARGAZKIA	IZENA	ABIZENAK

## ERANSKINA II: Talde lana hausnartzeko errubrika.

Gero eta gehiago aipatzen da, zenbait lanbidetan bezala, talde lana ezinbestekoa dela, bai elkarbizitzarako baita lan giro ona izateko. Baina askotan ez da horrela gertatzen, faktore asko sartzen dira tartean: izaerak, kimika pertsonalak, komunikazioa arazoak, ikuspegi edo irizpide ezberdinak izatea, aniztasuna, asertibitate eta enpatia falta, ... Hala ere pentsatu behar dugu edozein ikastetxetan ongi ezagutzen edo gure gustuko ez diren pertsonekin lan egin beharko dugula, eta ezin izango dugu erabaki honekin bai eta horrekin ez. Askotan teoria ongi dakigu baino gero praktikan arazoak ditugu.

Beste aldetik onartu behar dugu horrelako gatazkak sortzea normala dela, gatazkak, bizitza profesionalaren zati natural bait dira. Gakoa non dago? Bakoitzak bere burua ongi ezagutzean eta asertibitatea lantzean eta talde bezala egoera horiek kudeatzen jakitean.

Horregatik irakasle taldeari bururatu zaigu zuek hausnarketarako errubrika bat sortzea edo guk proposatzen duguna erabiltzea, edo "mix" bat egitea. Prozedura horrelakoa izango da:

- a. Taldeak eratu (zoriz antolatuko ditugu Ordenagailu Taldeak errespetatuz).
- b. Eskatu talde bakoitzari talde lanean ongi aritzeko beraiek pentsatzen dituzten irizpideak edo baldintzak.
- c. Guk sortu dugun errubrikarekin alderatu eta osatu, aldatu, ... talde bakoitzak bere errubrika propioa sortu dezake, ez dira denak berdinak izan behar. Errubrika hau sortuta dago baino ez dugu gidan sartzen ikasleen hasierako proposamena ez baldintzatzeko.
- d. Bai prozesuan zehar bai bukaeran taldekideek erabili behar duzue errubrika zuen talde lanaren kalitatea hausnartzeko. Idatziz eman behar duzuen azken txostenean ("Egilearen txostena") ere ongi legoke talde bezala prozesuaren balorazio bat.

## ERANSKINA III: Auto-ebaluazio orria.

<p>1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (ikasleei idatziz eman moduluko konpetentziak horien lorpen maila ebaluatu dezaten)</p>
<p>2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?</p>
<p>3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).</p>
<p>4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).</p>
<p>5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?</p>

## ERANSKINA IV: Moduluko lana aurkezpen saioen balorazioa.

- Zein taldek ebaluatzen du?

- Nor ebaluatzen duzue?

1) Zer gustatu zaizu aurkezpen honetatik?

2) Zer dago hobetzeko?

3) Besterik?